BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

209. zk. 2026, urriak 30. Ostirala 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Gernika-Lumoko Udala

2026. urterako euskarazko edo euskarazko eta beste hizkuntza batzuetako errotuluak ezartzeko dirulaguntza. BDNS (Identif.): 933788.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/eu/convocatoria/933788)

ERROTULUAK EUSKARAZ EDO EUSKARAZ ETA BESTE HIZKUNTZA BATEAN JARTZEKO 2026KO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

1. artikulua.— *Oinarrizko arauak*

a) Deialdi honek honako lege hauek ditu jarraibide: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, lege hori garatzeko erregelamendua eta 2012ko abenduaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako dirulaguntzen udal-ordenantza orokorrean xedatutakoa, baita aplikagarria den gainerako legedia.

Araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu Ordenantzara joko da (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, dirulaguntzak itzultzea, arau-hausteak eta zigorrak).

b) Dirulaguntzen legediari jarraiki, honako deialdi hau BDNS-ean (Dirulaguntzen datu-base nazionalean) argitaratuko da, eta horren laburpen bat Bizkaiko Aldizkaril Ofizialean iragarriko da. Era berean, Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

c) Dirulaguntza hauek norgehiagoka-araubidearekin bat tramitatuko dira.

d) Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluaren arabera.

e) Dirulaguntza hauek, 2026ko udal aurrekontuko 5-3354-48100 partidaren kontura joango dira eta guztira 2.000 euro bideratuko dira.

f) Dirulaguntza emateko instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Euskara zinegotziaren proposamena igorriko zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena har dezan.

2. artikulua.— *Xedea*

Udalerriko merkataritzako, ostalaritzako edo beste zerbitzu batzuk emateko establezimenduetako hizkuntza paisaia, kanpokoa zein barrukoa, euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzea.

3. artikulua

Dirulaguntzen onuradunak Gernika-Lumoko udalerrian merkataritzako, ostalaritzako edo beste zerbitzu batzuk emateko establezimendua duten pertsona fisikoak edota juridikoak dira.

4. artikulua.— *Betebeharreko baldintzak*

Aurreko artikuluetan jasotakoez gain, dirulaguntza jaso ahal izateko honako baldintzak bete beharko dira:

a) Hitzargune (merkataritza, enpresa eta elkarteen esparruan euskara normalizatzeko kanpaina, Udalak doan eskaintzen duen zerbitzua) programako hitzarmena Gernika-Lumoko Udalarekin sinatuta edukitzea.

b) Dirulaguntza jaso ahal izateko, lagundutako errotulazio-elementua zuzen idatzita egongo da; hau da, ez du akats gramatikalik edo ortografikorik izango.

eek: BAO-2026a209-(II-5546)

c) Izen propioa, toponimoa, akronimoa eta abizenak soilik dituzten errotuluek eta gainerako errotulazio-elementuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

d) Errotuluak egonkorra izan behar du; hau da, aldi baterako errotuluek edo euskarriek ere ez dute dirulaguntzarik jasoko.

e) Euskaraz eta gaztelaniaz grafia bertsua duten edo antzeko moduan idazten diren terminoak, euskaraz soilik idatziko dira errotuluan.

f) Bi hizkuntza ofizialak edota gehiago erabiltzen direnean, euskararen presentzia, gutxienez, gaztelaniaren edo beste hizkuntzen parekoa izango da dirulaguntza jaso ahal izateko.

Testuak zutabeka daudenean, euskara ezkerrekoan jarriko da. Testuak lerro berean daudenean, euskaraz hasiko dira. Eta testua bi lerrotan dagoenean, lehenengo lerroan joango da euskara eta bigarren lerroan beste hizkuntza. Era berean, testuak bi orritan bereizita daudenean, eskuineko orria euskararentzat izango da eta ezkerrekoa gaztelaniarentzat edo beste hizkuntza batentzat.

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak doako itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskainiko die interesdunei, diruz lagundutako errotuluetako testuen zuzentasuna bermatzeko.

5. artikulua.— *Eskaerak aurkezteko epea*

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 2026ko abenduaren 31ra bitartean.

Aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskaera agiria (1. Eranskina) behar bezala beteta.

b) Faktura eta ordainketa agiriak.

c) Elementua jarrita edo eskuragarri dagoela frogatzen duen argazkia. Eskaera elementu bat baino gehiagorentzat egiten denean, diruz laguntzea nahi den elementu guztien argazkia aurkeztu beharko da. Gainera, establezimenduaren kanpoko errotuluaren edo ibilgailuaren gaineko dirulaguntza eskaera bada, establezimenduaren kanpoko errotulu guztien edo ibilgailuaren alde guztien argazkiak aurkeztu beharko dira.

d) Enpresako ordezkariaren zinpeko aitorpena (2. Eranskina), aipatuz, besteak beste, ez duela zorrik Zerga Bilketa erakundeekin edota Gizarte Segurantzarekin (Udalak, aitorpenaz gain, eskatu ahal izango dio edozein unetan hori zuritzen duten ziurtagiriak).

6. artikulua

Aurkeztutako eskabidean eta agirietan ez bada egiaztatzen ezarritako baldintzak betetzen direla, eskaera egingo zaio eskatzaileari hamar (10) laneguneteko epean hutsunea zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko. Horrela egin ezean, eskatzaileak deialdiari uko egiten diola ulertuko da.

7. artikulua.— *Izapidetzea eta ebazpena*

Dirulaguntza emateko instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Euskara zinegotziaren proposamena igorriko zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena har dezan.

Behin betiko ebazpena erabaki eta jakinarazteko epea hiru hilabeteko epea izango gehienez ere. Jakinarazpen pertsonala bidaliko zaio legez finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipatutako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekurtsoen berri emango zaio.

Baldintza guztiak beta daudela egiaztatuta, dirulaguntzak kreditu erabilgarria agortu arte emango dira, Erregistro nagusian izandako eskaeren sarrera data eta orduaren araberako lehentasun-ordena jarraituta.

eek: BAO-2026a209-(II-5546)

8. artikulua

Dirulaguntza hauek xede berdina finantzatzeko beste dirulaguntzekin bateragarri izango dira, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

9. artikulua.—*Diruz lagun daitezken gastuak*

a) Establezimenduaren kanpoko errotuluak (errotulu nagusia, toldoa, erakusleihokoak) eta ibilgailuarenak.

— Errotuluaren euskarriari dagokion gastua bakarrik lagunduko da diruz; ez da kontuan hartuko errotulua instalatzearen gastua.

— Erakusleihoan jartzen diren kanpoko errotulu edo biniloei dagokienez, euskarriaren gastua bakarrik lagunduko da diruz; ez da kontuan hartuko kristalaren kostua, ezta instalazio-gastua ere.

— Toldoen kasuan, estanpazio gastua bakarrik ordainduko da; ez da toldoari dagokion gastua ordainduko.

b) Establezimenduaren barruko hizkuntza-paisaia: idatzizko euskarri finkoak eta bezeroak eskuragarri izan ditzakeen idatzizko euskarriak (karta, mezuak, katalogoa…)

Inoiz ez dira lagun daitezkeen gastutzat joko zeharkako zergak, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak.

Kasu honi dagokionez, 38/2003 legeko 31.artikuluko eta 887/2006 Errege Dekretuko 83. artikuluko arauak aplikatuko dira.

10. artikulua.—*Dirulaguntzak emateko irizpideak*

a) Kanpoko errotulu nagusia edota toldoa:

— Euskaraz soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %60ko dirulaguntza emango da, betiere, 800 euroko mugapean.

— Euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %30eko dirulaguntza emango da, betiere, 400 euroko mugapean

b) Kanpoko ateko eta erakusleihoko errotulua/biniloa:

— Euskaraz soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %60ko dirulaguntza emango da, betiere, 600 euroko mugapean.

— Euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %30eko dirulaguntza emango da, betiere, 300 euroko mugapean

c) Ibilgailuetako errotuluak

— Euskaraz soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %60ko dirulaguntza emango da, betiere, 400 euroko mugapean.

— Euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %30eko dirulaguntza emango da, betiere, 200 euroko mugapean.

d) Eskaintzen dituzten produktuk/zerbitzuak erakusten erabiltzen diren idatzizko euskarriak (seinaleztapen-euskarriak, menua, karta, eskaintzak).

— Euskaraz soilik jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %60ko dirulaguntza emango da, betiere, 500 euroko mugapean.

— Euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzeagatik gastuaren oinarri ezargarriaren %30eko dirulaguntza emango da, betiere, 250 euroko mugapean.

Ehuneko horiek %10 handitu egingo dira eskatzaileak egiaztatzen badu Bai Euskarari, Bikain edota Harrobi ziurtagiria duela.

11. artikulua.—*Zuriketa*

Dirulaguntza hauen berezitasuna kontuan izanik, ez da eman osteko zuriketarik eskatuko, eman orduko justifikatu beharko delako faktura ordaindu izana edota jarritako errotuluen argazkiak aurkeztuta

Gernika-Lumon, 2026ko irailaren 10ean.—Euskara Zinegotzia, Ziortza Bilbao Agirre

eek: BAO-2026a209-(II-5546)